

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Nafarroan gaur hasi den Hondakinen Prebentziorako Astearen baitan 50 ekintza baino gehiago izanen dira

*Hondakinei buruzko Foru Legea onartu den urtean, entitate publiko, enpresa, GKE, dendari, ikastetxe zein gizarateak Europak 2018rako antolatutako astea ospatuko dute*

Larunbata, 2018.eko azaroak 17

Gaur, azaroak 17, Europako Hondakinen Prebentziorako Asteari hasiera emango zaio eta datorren igandera bitartean, azaroak 25, hondakinen prebentzioarekin lotutako 50 ekitalditik gora egingen dira. Bertan parte hartuko dute Nafarroako entitate publiko, GKE, saltzaileen elkarte, ikastetxe zein gizarateak.

Hondakinen Prebentziorako Astea LIFE+proiektuaren baitako ekintza da eta Europa guztian egiten da hondakinek eta horiek duten inpaktua murrizteak duen garrantzia gizarateari helarazteko helburuarekin. 2018ko edizioan Europako Batasunean 14.000 ekintza baino gehiago egingen dira, eta aste honek esanahi berezia du Nafarroan, izan ere aurten onartu baita Hondakinen Foru Legea, zeinak prebentzioa duen ardatz.

Goizeko 11:00etan "Ipini Again" tailerrari emango zaio hasiera, bertan Traperos de Emausek Berriozarren daukan Prestatze Zentroan erroparen truke eta kustomizazio tailerra egingo da, Traperoek eta Iruñerriko Mankomunitateak elkarlanean eta berrerabilpena bultzatzeko aste honetarako antolatutako lehen ekintza izango da, besteak beste, Prestatze Zentrorra bisitak eta alferrik galtzen diren elikagaien inguruan ere ekimenak antolatu dituzte.

**Berrerabilpena, bilgarriak, poltsak eta [yonotirador@s](mailto:yonotirador@s) topaketak**

Aste osoan zehar, plastikozko poltsen erabilera murriztea izanen da Hondakinen partzuergoko mankomunitateek egingo dituzten ekintzen ardatza eta paperezko poltsa berrerabilgarriak banatuko dituzte. Zehazki, Bortzirriak, Malerreka eta Baztango udaletxeak 'Erosi hondakinik gabe, hondakinik onena, sortzen ez dena' kanpainaren baitan dendetatik poltsak eramaten ez dituzten bezeroak sarituko dituzte. Mairagak, Tafallan azaroaren 16tik 24ra bitartean egingo den Gizarte Ekonomiako jardunaldien baitan landuko du, eta Izarbeibar eta Zangozako mankomunitateek aste guztian zehar dendarien elkarte eta bertako saltokiekin batera.

Bilgarriekin sortutako hondakinen prebentzioa eta Ekonomia Zirkularra hori izango da Cordovillan azaroaren 20an Ecoembes eta Nafarroako Gobernuak antolatutako topaketa.

Ekitaldi jasangarriak izango dira aste honetan landuko diren beste gai batzuk eta hala bi topaketa egingo dira horren inguruan azaroaren 21ean, asteazkenean: Berriozarren 12:00etan ekitaldi jasangarrien inguruko elkarrizketak eta kirolak eta plastikoen kutsaduraren inguruko mahai-ingurua 19:00etan Tafallan.

Berrerabilpenaren sustapena Arangureneko Udaletxeak antolatutako hainbat tailerretan landuko da eta Tuteran "[yonotirador@s](mailto:yonotirador@s)" lehen topaketa egingo da, Ekonomia Zirkularraren sustapena eta Prebentziorako Bulegoak antolaturik. Azkenik, BSH enpresak barnemailako kanpaina egingo du "¡Es hora de desintoxicar!" lemapean.

Ekintza guztien inguruko informazioa honako [webgnuean kontsulta daiteke](#).